

## Euskal Itsas Museoak eta Aquariumek #Kontxa100 proiektuko 1922ko estropadak berreskuratu dituzte jarduera ugarien bidez

- Kontxako Banderaren astean garatzen den proiektuak, *Ciaboga* aldizkariaren argitalpena eta arraunketaren iraganari eta orainaldiari lotutako hainbat jarduera biltzen ditu.
- Seigarren edizioak, Lehen Mundu Biraren laugarren mendeurrena ospatzeko ekitaldietan sartu zen *Elkano estropada* deituriko 1922ko estropadaren xehetasunak biltzen ditu.
- Ekimenak lehen aldiz egoitza artistiko bat antolatzen du, non *Formato Norte* elkarte artistikoak Donostiako portuan obra bat sortuko baitu.

Donostia, 2022.09.01. Gaur, irailaren 1ean, osteguna, **Euskal Itsas Museoak** eta **Aquariumek** elkarlanean bultzatzen duten #KONTXA100 proiektuaren edizio berri bat aurkeztu dute, #KONTXA1922. Donostiako Kontxako Banderaren bi igandeen arteko astean gauzatzen den proiektu kulturalaren aurkezpenean, **Harkaitz Millánek** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Diputatuak, **Eneko Goiak** Donostiako alkateak, **Xabier Alberdik** Euskal Itsas Museoko Zuzendariak eta **Alejandro Larrodék** Aquarium-eko Museo arloko koordinatzaileak, parte hartu dute. Bostgarren urtez jarraian, egitasmo honekin Kontxako estropaden ondare kultural eta historikoa agerian utzi nahi dute, duela 100 urteko estropadetan gertatutakoaren historia berreskuratuz.

Seigarren urtez, ekimenak traineru estropaden ondare kulturala eta historikoa berreskuratu nahi du, duela 100 urteko estropadetan gertatutakoa azalduz. Aurten, 1922ko estropadak ikertu eta zabaldu nahi dira, hain zuzen ere. 1922ko Kontxako Banderaren edizioa Lehen Mundu Biraren laugarren mendeurrena ospatzeko ekitaldien programan sartu zen, "Elkano estropada" izenarekin. Soterotxok irabazi zuen banderari "Elkanoko Bandera" deitu zioten, eta oso estimatua zuen izaera bereziagatik eta pisu sinboliko handiagatik.

Prentsaurrekoan, Xabier Alberdi Euskal Herriko Itsas Museoko zuzendariak eta Alejandro Larrodé Aquariumeko museoaren arloko koordinatzaileak programazio ugaria aurkeztu dute, hala nola *Ciaboga* aldizkariaren argitalpena, aldi baterako erakusketa eta *Arraun Astea* jarduera-programa.

✓ ***Ciaboga* aldizkariaren 6. alearen argitalpena:** *Ciaboga* aldizkaria euskal itsas historia zabaltzen duen argitalpen bat da. Duela 100 urteko Kontxako estropadetakoa xehetasunak azaltzea du helburu, kasu honetan 1922ko, Kontxako Banderaren estropadaren xehetasunak biltzen ditu. Oraingo

honetan, Soterotxok duela mende bat irabazitako bandera gogorarazten du aldizkariak. Munduko Lehen Itzuliaren laugarren mendeurrena ospatzeko ekitaldien programan sartu zen bandera hori, “Elkano estropada” izenarekin. Ciaboga aldizkariaren 6. alea, Diario Vasconj egunkariarekin batera argitaratu eta banatuko du 2022ko irailaren 9an. Horrez gain, aldizkaria Aquarium eta Euskal Itsas Museoaren webguneetan ere eskuragarri egongo da.

✓ **KONTXA1922: Duela 100 urteko estropadak erakusketa:** Erakusketak duela 100 urteko estropaden gertaerak, irudiak eta objektuak ditu ikusgai, hala nola Ur Kirolak Kirol Elkarte Nautikoak utzitako 1922ko “Elkano Kopa”. Horrez gain, material biziklatuz egindako begirada ironiko bat duen diorama bat egongo da ikusgai. Sarrera doan izango da eta Euskal Itsas Museoko hirugarren solairuan, ganbara aretoan, izango da ikusgai irailaren 1etik 11ra.

### **Arraun Astea programa**

Horrez gain, Euskal Itsas Museoak eta Aquariumak jarduera-ibilbide zabala aurkeztu dute, Arraun Astea izenarekin. Besteak beste, arraunlarientzako topaketa bat, egoitza artistiko bat edo Kontxako estropadak zuzenean jarraitzeko aukera antolatu dute, “Estropadak leihotik” ekimenaren bidez.

✓ **Egoitza artistikoa:** “Formato Norte” elkarte donostiarreko kide diren artistak 2022ko Kontxako Banderaren estropadetan oinarritutako obra bat sortuko dute, *Elkano Estropadaren* mendeurreneko itsas ondarea eta memoria historikoa balioan jartzeko. Pieza hau Euskal Itsas Museoko kanpoaldeko horman sortuko da, eta, eguneko ordu batzuetan, Irailaren 5etik- 10era, bisitariak sorkuntza prozesua zuzenean ikusi ahal izango dute.

✓ **Emakumeak arraunean topaketa:** Topaketa honetan, Kaiarriba Arraun Elkarteko Ana Hosteins, Ane Diaz eta Irati Etxebeste arraunlariek, arraun munduari buruzko beren esperientzia eta inpresioak partekatuko dituzte emakumeen ikuspegitik. Ekintza honekin, Kontxan 15 urte betetzen dituen modalitate honen iragana eta oraina hurbildu nahi dugu. Hitzaldia Aquariumeko auditorioan gauzatuko da irailaren 7a, asteazkena, 17:30etan. Erreserbak Aquariumaren web orriaren bidez egin daiteke.

✓ **Estropadak leihotik ikuskizuna:** Euskal Itsas Museoak museoaren ateak ireki ditu bigarren urtez, irailaren 4an eta 11n, Kontxako Banderako estropadak ikusteko aukera izateko. Piknik kutxa bat eskainiko zaie parte hartzaileei Kofradia-Itsas Etxea eta Mala Gissonaren eskutik. Jarduera irailaren 4ean eta 11ean ospatuko da 10:30etatik aurrera eta 8€ko prezioa izango du pertsonako (Ikuskizuna + piknik kutxa). Erreserbak Euskal Itsas Museoaren webgunearen bidez.

✓ **XVIII. mendeko patatxe batean nabigatzeko sekretuak ezagutzen:** Irailaren 8an, 19:30tan, Albaolako presidentea den Xabier Agotek, burutu berri duten arkeonabegazioari esker aurkitu eta zehaztu dituzten ontziaren ezaugarri teknikoak (arraunak, mastak, aparailua....) buruzko hitzaldi ibiltaria emango du Euskal Itsas Museoan. Hitzaldiaren sarrera Museoan bertan egin ondoren Donostian izango den “Juanita Larando” patatxan amaituko da. Sarrera doakoa da eta Museoaren webgunearen bidez hartu daiteke.

## El Euskal Itsas Museoa y el Aquarium presentan la sexta edición del proyecto #Kontxa100 para la puesta en valor del patrimonio de las regatas de la Concha

- El proyecto incluye una exposición, una publicación y actividades variadas vinculadas al pasado y al presente del remo durante toda la semana de competición de la Bandera de la Concha.
- La sexta edición recoge los pormenores de la regata de 1922, la denominada *Regata Elcano*, la cual se incluyó en los actos de conmemoración del cuarto centenario de la Primera Vuelta al Mundo.
- La iniciativa organiza por primera vez una residencia artística en la que el colectivo artístico local *Formato Norte* intervendrá una pared exterior del museo del puerto donostiarra.

San Sebastián, 01.09.2022. Hoy jueves, 1 de septiembre, el Euskal Itsas Museoa y el Aquarium han presentado una nueva edición del proyecto cultural #KONTXA100 que este año, al recuperar lo acontecido en las regatas de 1922, adopta el título de #KONTXA1922. En la presentación han participado el Diputado de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa **Harkaitz Millán**, el alcalde de San Sebastián **Eneko Goia**, el director del Museo Marítimo Vasco **Xabier Alberdi** y el coordinador del área de museos del Aquarium **Alejandro Larrodé**.

Por sexto año consecutivo con este proyecto se quiere poner de manifiesto el bagaje cultural de las **Regatas de la Bandera de la Concha** a través de la recuperación histórica de lo acontecido en las regatas de hace 100 años, en esta ocasión, la regata de 1922. Una regata especial puesto que se incluyó en el programa de actos de conmemoración del cuarto centenario de la Primera Vuelta al Mundo, bajo la denominación de “**Regata Elcano**”, y la bandera que ganó Soterotxo se llamó la “**Bandera de Elcano**”.

Durante la rueda de prensa el director del Museo Marítimo Vasco **Xabier Alberdi** y el coordinador del área de museos del Aquarium **Alejandro Larrodé** han presentado la publicación de la revista *Ciaboga*, y el programa de actividades *Arraun Astea*.

✓ **Publicación del nº 6 de la revista Ciaboga.** El Museo Marítimo Vasco, el Aquarium y El Diario Vasco regresan con la publicación del sexto número de *Ciaboga*, una revista de divulgación de la historia marítima vasca, que recoge los pormenores de la regata de la Bandera de la Concha disputadas un siglo antes, en este caso de 1922. En esta ocasión, la revista evoca la bandera ganada hace un siglo por *Soterotxo* la cual se incluyó en el programa de actos de conmemoración del cuarto centenario de la Primera Vuelta al Mundo, bajo la denominación de “**Regata Elcano**”. La edición del sexto número de la revista *Ciaboga* se publicará y distribuirá junto a la edición del 9 de septiembre de 2022 del Diario Vasco. Además de esto, la revista estará disponible en la web del Aquarium y del Euskal Itsas Museoa.

✓ **Exposición “Las regatas de hace 100 años”.** La exposición da a conocer los acontecimientos de la polémica regata de *Elkano* ganada por *Soterotxo* de 1922, a través de imágenes y objetos reales, como la “Copa Elkano” de 1922 cedida por la Sociedad Deportiva Náutica Ur Kirolak. Además de esto, se dispondrá un diorama construido con materiales reciclados que propone una mirada irónica de las polémicas tan habituales en las regatas de traineras. La muestra se exhibirá en la tercera planta del Euskal Itsas Museoa, en la sala Ganbara desde el 1 al 11 de septiembre de manera gratuita.

### **Programa Arraun Astea**

Además de esto, el Euskal Itsas Museoa y el Aquarium han presentado un variado itinerario de actividades bajo el nombre de *Arraun Astea*, entre los que se han programado un **encuentro con mujeres remeras**, una **residencia artística** o la oportunidad de seguir en directo las regatas de la Concha con la iniciativa “**Las regatas desde la ventana**”.

✓ **Residencia artística** en la que varios artistas del colectivo donostiarra “Formato Norte” crearán un mural basado en las regatas de la Bandera de la Concha de 2022 y así poner en valor el patrimonio marítimo y memoria histórica del centenario de las *Regatas Elkano*. La pieza se efectuará en el exterior del Euskal Itsas Museoa dónde, durante unas horas al día, los usuarios y visitantes podrán ver en directo el proceso de creación de la obra. Del 5 al 10 de septiembre en el exterior del Euskal Itsas Museoa.

✓ **Encuentro “Las mujeres en el remo”.** Un encuentro en el que se propone un intercambio de experiencias e impresiones de Ana Hosteins, Ane Diaz e Irati Etxebeste, tres de las remeras de la Donostiarra Kaiarriba Arraun Elkarte, acerca del mundo del remo desde el punto de vista de la mujer. Queremos acercar al público el pasado y el presente de esta modalidad que en La Concha cumple ya 15 años. La actividad se celebrará el miércoles 7 de septiembre a las 17:30h en el Auditorio del Aquarium y tendrá entrada gratuita. Las reservas se realizan a través de la web del Aquarium.

✓ **“Las regatas desde la ventana”.** El Euskal Itsas Museoa abre las puertas del museo por segundo año consecutivo para ofrecer la posibilidad de disfrutar las regatas de la Bandera Concha desde su ventana los domingos 4 y 11 de septiembre. Además de esto, las personas participantes podrán seguir la emisión en directo en televisión y disfrutar de una caja picnic de la mano de la Kofradia-Itsas Etxea y de Mala Gissona. Las dos actividades tendrán lugar el 4 y 11 de septiembre a las 10:30h con un coste de 8€ por persona. Las reservas se realizarán a través de la web del Euskal Itsas Museoa.

✓ **Descubriendo los secretos de la navegación en un patache del siglo XVIII:** El miércoles 8 de septiembre a las 19:30h el director de Albaola Xabier Agote tras impartirá una charla itinerante sobre diversas características técnicas (remos, arboladura, jarcia..) del Patache “Juanita Larando” que se han descubierto y afinado mediante la arqueonavegación realizada con la misma. La charla arrancará en el Euskal Itsas Museoa y terminará en la propia embarcación. Las reservas a la actividad, con entrada gratuita, se realizarán a través de la web del Museo Marítimo Vasco.